

**INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIETAN ETA KULTURA
DIGITALEAN EUSKARA SUSTATZEKO JARDUEREN KONTRATAZIOA ARAUTZEN
DUTEN AGIRIAK.**

1. GAIA

Agiri honek arautzen ditu alderdien eskubideak eta betebeharrak zehazten dituzten itunak eta baldintzak, euskara kultura digitalean eta informazioaren eta komunikazioaren teknologietan (IKT) sustatzeko jarduerak, haur eta gazteengan eragin berezia izanen dutenak, kontratatzerakoan kontuan hartu beharreko alderdi juridikoei, administratiboei, ekonomikoei eta teknikoei dagokienez.

Zerbitzu-kontratu honen xedeari dagokion Kontratu Publikoen Hiztegi Komuneko nomenklatura (CPV kodifikazioa, Batzordearen 2013/2008 (EB) Erregelamenduan ezarria) honako hau da: 80420000-4 Ikaskuntza elektronikoko zerbitzuak.

Kontratua administratiboa izanen da eta kontratugileak honako hauen mende geldituko dira: baldintza agiri honek ezartzen duena, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratazioa arautzen duten beste xedapen guztiak.

Bi lizitazio-sorta ezarri dira:

1. sorta: Euskarazko IKTei buruzko bi jardunaldi programatzea, D ereduko DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleentzat.
2. sorta: Kultura digitalari eta IKTei buruzko 12 ikastaro eta lantegi labur herritar guztientzat (helduak nahiz gazteak), lanorduetatik kanpo.

Egin beharreko lanen edukia.

1. sorta: Euskarazko IKTei buruzko bi jardunaldien programazioa diseinatzea. Jardunaldi horiek eskola-orduetan eskainiko zaizkie D ereduko DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako Nafarroako ikasle guztiei.

Aurrez aurrekoa bada, bi jardunaldi egingen dira Baluarte biltzar jauregian, Iruñerrian hezkuntza-maila horiek eskaintzen dituzten ikastetxe guztietako 400 ikaslerentzat gutxienez.

Gainera, antzeko prestakuntza-proposamen bat eskainiko da Iruñerriitik kanpo dauden eta D ereduko DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleak dituzten ikastetxeetan bertan emateko (gutxienez 275 ikasle).

Horretarako:

- Hainbat lantegi prestatu behar dira.
- 20 minutu inguruko aurkezpen edo hitzaldi laburren ziklo bat antolatu behar da, kultura digitalean, oro har, eta IKTetan euskararekin lotuta dauden proiektuei buruz.
- Zehaztuko behar da enpresak berak zer baliabide jarriko dituen jarduerarako.
- Kontuan hartu behar da azpiegitura teknikoa (ordenagailuak, sareko konexioa, proiektagailua, lokalak eta dagozkien aseguruak...).

2. sorta: Kultura digitalari eta IKTei buruzko 12 ikastaro eta lantegi labur egitea; horretarako, 5 modalitate desberdin diseinatu behar dira. Ikastaroak Nafarroa osoko herri batzuetan emanen dira, lan-ordutegitik kanpo eta herritar guztientzat irekita egonen da. Herri horietako 2 gutxienez Nafarroako Pirinioetakoak izanen dira.

Iradokizun gisa, lantegi hauek proposatzen dira, baina enpresa lizitatzailaren esku uzten da beste aukera batzuk planteatzeko aukera:

- *Youtuber* izateko ikastaroa.
- Blogari izateko ikastaroa.
- Robotikako ikastaroa.
- Sare sozialetako arriskuak.
- Musika sortzeko, nahasteko eta hedatzeko APPak ezagutzera emateko dibulgaziozko lantegi praktikoa.

Bi sortek bete beharreko baldintzak:

- Lantegi, hitzaldi eta jarduera guztiak euskaraz egingen dira osoki.
- Aurkeztu behar da ikastaroak eta lantegiak emanen dituzten hizlarien zerrenda, baita horietan parte hartzeko duten konpromiso argia ere.
- Enpresa adjudikaziodunaren ardura izanen da beharrezko baliabideak antolatzea, bai eta lokalen erreserba eta dagozkien aseguruak egitea ere. Zehazki, enpresa adjudikazio-hartzailea arduratuko da jarduerak egiten diren tokietako ikastetxeekin eta udalekin harremanetan jartzeaz, jarduera horien gaineko xehetasun guztiak zehazteko.

- Kontratuak irauten duen bitartean, komunikazio-ekintza oro gutxienez 10 egun lehenago bidali beharko da, onetsia izan dadin.
- Sortutako materiala ostatatu beharko da <http://www.sareaneuskaraz.eus> webgunean, zeina Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa baita. Agiri honetan agindutako zerbitzuen artean, jardueretan parte hartzea errazteko tresna interaktibo bat garatu behar bada, ekitaldiaren orri ofizialari lotua egon beharko du, eta haren titulartasuna ere Nafarroako Gobernuarena izanen da.
- Laburpen-bideo bat egingen da.
- Webgunean atal bat prestatuko da eta hartan ekimen honen historikoa erakutsiko da.
- Enpresa adjudikaziodunak bi badira (sorta bakoitzeko bat), harremanetan jarri beharko dute, elkarrekin egiteko bi sorten hedapena eta publizitatea. Jardueren hedapenerako eta publizitaterako baldintzak Euskarabidearekin egindako bileran erabakiko dira, lanak adjudikatu ondotik. Komunikazio-planak honako hauek hartu beharko ditu barnean, gutxienez: hedapen-plan bat sare sozialetan, publizitateko materialaren diseinua eta inprimatzeko plana, eta Euskarabidearekin, Hezkuntzarekin eta udaletako euskara zerbitzuekin koordinatzeko plana.

2. KONTRATAZIO ORGANOA ETA UNITATE KUDEATZAILEA

Kontratazio organoa Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren izenean eta hura ordezkatzuz. Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua izanen da organo kudeatzailea.

3. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Agiri honen xede den kontratua prozedura irekia erabiliz adjudikatuko da, bat etorritz Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritakoarekin. Espedientea tramitazio arruntekoa da.

4. IRAUPENA

Kontratua gauzatzeko epea kontratua formalizatu eta biharamunean hasiko da eta 2023ko azaroaren 20an bukatuko; berariaz luzatzen ahalko da bi urtez, iraungi baino lehen, bi alderdiek hala adosten badute.

Kontratuaren hasierako indarraldiaren ondoko luzapenak berariaz eta alderdien adostasunarekin formalizatuko dira, behar den aurrerapenarekin eta kontratazio organoaren onespena izanik. Enpresak kontratua luzatu nahi duela adierazteko mezu bat idatzi behar dute Euskarabidera, ondoko helbide elektronikora: euskarabidea@navarra.es

Ez da luzapena egiterik izanen epea bukatutakoan ez bada bi alderdien adostasunaren frogarik edo beste kontratu bat indarrean sartzen bada.

5. KONTRATUAREN ZENBATEKOA

Kontratuaren balio zenbatetsia 247.933,88 eurokoa da, BEZik gabe, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulaturik, eta honela banatuko da:

2023. urtea: 82.644,62 euro (BEZik gabe).

2024. urtea: 82.644,62 euro (BEZik gabe).

2025. urtea: 82.644,62 euro (BEZik gabe).

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua 82.644,62 eurokoa izanen da BEZik gabe, 66.115,70 euro BEZik gabe 1. sortan eta 16.528,92 euro BEZik gabe 2.ean. Prezio hori gehienezkoa da; hortaz, lizitatzailleen eskaintzak ez dira hori baino handiagoak izanen.

Gastua egotziko zaio 2023ko gastuen aurrekontuko "IKTetan euskara erabiltzeko Sarean programa" izeneko B30002 B3200 2279 334100 partidari.

6. LIZITATZAILEEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Kontratazio-prozeduran parte hartzen ahalko dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzerriarrek, kontratatzeko debekurik edo bateraezintasunik ez badute eta interes gatazkan ez badaude. Betekizun horiek guztiak eskaintzak aurkezteko epea bukatzen den unean bete behar dira.

Euskarabideak kontratuak egiten ahalko ditu aldi baterako enpresa-elkarteekin edo taldean parte hartzen duten pertsonekin, Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 13. artikuluan xedatzen diren baldintzetan. Baterako parte-hartze hori agiri pribatu baten bidez egiaztatu beharko da, non lizitatzailleek batera aurkeztu nahi dutela adierazi behar baitute, bai eta bakoitzaren partaidetza portzentajea zehaztu, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu ere; azken horrek ahalmenak izanen ditu parte hartzaile guztien eskubideak erabiltzeko eta kontratutik eratorritako betebeharrak betetzeko, hura azkendu arte.

Aldi baterako elkarte batean edo talde batean parte hartzen duten lizitatzailleek betebeharrak solidarioa izanen dute.

Lizitazio eskaintza bateratua aurkezten duten enpresek ezin izanen dituzte bakarkako proposamenak aurkeztu sorta berean, ez eta aldi baterako beste elkarte batean sartuta edo beste enpresa batzuekin elkartuta ere. Debeku hori hausten bada, ez da onartuko enpresa lizitatzaille arau-hausleak sinatzen duen eskaintzarik.

Lizitazioaren ondorioetarako, aldi baterako elkartean aurkezten diren enpresak eta taldean parte hartzen duten pertsonak adierazi beharko dituzte batasun horiek osatzen dituzten kideen izenak eta inguruabarrak, baita kide bakoitzaren partaidetza ere, eta adierazi beharko dute konpromisoa hartzen dutela aldi baterako elkarte gisara formalki eratzeko kontratuaren adjudikaziodun izatekotan. Kide bakoitzak egiaztatu beharko du jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala dituela, agiri honetan ezarritakoaren arabera.

Baldintza horiek egiaztatuko dira lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpenarekin. Adierazpen hori agiri honen I. eranskinean dago.

7-. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Adjudikaziodun proposatuko den pertsonak kontratua egikaritzeko kaudimen ekonomiko eta finantzario aski duela frogatu beharko du, hau da, enpresak ekonomia eta finantza egoera egokia duela, halakoa non izaera horietako ezein gorabeherak ez duen arriskuan jarriko kontratua behar bezala egikaritzea.

Kontratu honetan, aurrekoa frogatzeko, azken hiru ekitaldietan (2020-2021-2022), jarduera-arlo berean, kontratuaren xedekoa baino zenbateko goragoko negozio-bolumen globalari (diru-sarreraren bolumenari) buruzko adierazpen bat aurkeztuko da. Aipatutako adierazpena I. eranskinean gehituko da. Kontratuaren indarraldi osoan eutsi beharko zaio eskatutako kaudimen ekonomikoari.

Baterako parte-hartzeetan, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa frogatuko dira batera aurkezten diren enpresetako edozeinek emandako datuekin, edo enpresa guztien datu metatuekin.

8-. KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALA

Proposamena jasoko duen pertsonak kaudimen teknikoa egiaztatu beharko du, hau da, kontratua egoki egikaritzeko gaitasun tekniko eta profesionala dituela.

Kaudimena egiaztatzeko, erakunde lizitatzailleak aurkeztu behar du azken hiru urteetan eman dituen zerbitzu nagusien zerrenda; zerbitzu horiek, betiere, izan behar dituzte kontratu honen xedearen ezaugarri berak edo antzekoak. Zerrenda horretan xehetasun hauek adierazi behar dira: zenbatekoa, data, eta zerbitzu horien hartzaile publikoa edo pribatua, betiere guztira lizitazio honetarako aurreikusitako aurrekontuaren zenbateko berdina edo handiagoa osatzen badute, eta hartzaileak behar bezala gauzatu izanaren ziurtagiriekin abalatuta.

Ziurtapen hori ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Gobernuari emandako laguntza zerbitzuen kasuan; halakoetan aski izanen da, besterik gabe, entitate horrendako egindako zerbitzuak aipatzea.

9. PUBLIZITATEA

Iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera igorri beharko da beste edozein publizitate egin baino lehen. Iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian ere emanen da argitara, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu izanaren berrespena jaso ondoren, edo bidalketa jaso izanaren berrespenetik 48 ordura. Betiere, beste publizitate horretan adierazi beharko da igorpen haren data, eta ezin izanen da Europar Batasuneko iragarkian ezarritakoaz bestelako zehaztapenik egin.

Iragarkian dagoen informazioa eskaintza publikotzat joko da eta adjudikazio boterearentzat loteslea izanen da eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte, kontratua eten edo hartan atzera egiten den kasuetan izan ezik.

10. ESKAINTZEN AURKEZPENA

10.1.- TOKIA ETA EPEA.

Proposamenak Lizitazio Elektronikoaren Nafarroako Plataformaren (hemendik aitzina, PLENA) bidez soilik aurkezten ahalko dira; era berean, PLENAREN bitartez egingen dira interesdunekin egin beharreko komunikazio oro eta gainerako tramiteak.

Kontratazioaren Atarian argitaratutako lizitazioaren iragarkiaren bidez jotzen ahalko da PLENARA; handik, interesa duen edozein pertsonak deskargatzen ahalko du mahaigaineko aplikazioa. Horren bidez, zifratze mekanismo estandarrak baliatuz, eskaintzak prestatzen eta aurkezten ahal dira, gutun azal digitalaren bidez, bai eta gordailu seguruan gorde ere.

Deskargatu ondotik, aplikazio hori baliozkoa izanen da PLENAREN bitartez beste edozein lizitazio egiteko.

Eskaintzak lizitazioa egingen duenaren mahaigainean zifratzen dira zifratze mekanismo estandarrak erabiliz. Behin aurkeztuta, gordailu seguruan gordetzen dira.

Eskaintzak aurkezteko epea kontratazioaren iragarkian ezarriko da, eta, gutxienez ere, 30 egun naturalekoa izanen da, iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera igortzen denetik kontatzen hasita. Iragarkiak aukera emanen du kontrataziorako agirietan sarbide zuzena, osoa eta mugarik gabea izateko.

Gutun-azalak irekitzeko unean epez kanpoko aurkezpen bat hauteman bada eta aurkezpen horren gaineko arrastoren bat jaso bada, baliozkotu egingen da arrastoak aurkezpenarekin bat egiten badu; eta eskaintza, halaber, luzatutako 24 orduko epearen barnean jaso bada, baliozkotzat jo eta ireki egingen da.

Aitzitik, arrastoak bat egiten ez badu, edo eskaintza jaso bada luzatutako 24 orduko epeetik kanpo, eskaintza baztertuko da eta ez da inoiz ere haren edukia irekiko.

Eskaintza epez kanpo aurkeztu bada eta enpresa edo entitate lizitatzailerak esaten badu eskaintza aurkeztean arazo teknikoak zeudela, eskaintza aurkezteko unean plataforman arazo teknikorik egon zen egiaztatuko da. Plataformaren funtzionamendu arruntan gorabehera teknikoren bat gertatu bazen bakarrik onartuko da aurkeztutako eskaintza. Lizitatzaileraren ezagutza gabeziak edo plataformarekin ikustekorik ez duten arazo teknikoek ez dute justifikatuko eskaintza denboraz kanpo aurkeztea, eta eskaintzak ez dira onartuko.

10.2. PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA

Enpresa lizitatzailerak Lizitazio Elektronikoaren Plataformak eskatzen dituen tramite eta inprimaki guztiak beteko dituzte eskaintzak aurkezteko.

Eskaintzak aurkezten edo/eta sinatzen dituzten pertsona fisikoak behar bezala identifikaturik egon beharko dira, eta ordezkari sinatzaileen kasuan, Lizitazioaren Plataforman jarduteko eta aritzeko baimena emanen dien ahalorde aski izan beharko dute.

Sinadura elektroniko aitortuarekin sinatuko da eskaintza. Sinadura elektroniko hori ziurtapen zerbitzuen emaile batek baliozkotasunez emana izanen da, eta agiriaren, eskaintzaren eta hari lotutako dokumentu guztien identitatea eta osotasuna bermatuko ditu, Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean eta kontratazio publiko elektronikoaren gainerako xedapenetan xedatutakoaren arabera.

Eskaintza elektronikoari eranstean zaion banakako fitxategi bakoitzak 50 MB-eko tamaina izan behar du, gehienez ere. Eskaintzaren tamaina osoa, barneko dokumentu guztiak barne, 100 MB-eko izan behar du, gehienez ere. Plataformak ez du mugarik jartzen eskaintza bati erants daiokeen fitxategi kopuruan.

Erabili ohi diren formatuak onartuko ditu PLENak eskaintzaren aurkezpenean eranstean diren dokumentuendako (doc, docx, xls, xlsx, ppt, pptx, rtf, sxw, abw, pdf, jpg, bmp, tiff, tif, odt, ods, odp, odi, dwg, zip); bestelako formatuak dituzten artxiboak erantsi nahi badira, artxibo konprimatu batean (ZIP) bilduz eranstean ahalgo dira.

Plataformako formularioetan sartutako balio objektiboen eta irizpide bakoitzari eusten dioten dokumentu atxikien artean desadostasunak badaude, entitate edo enpresa lizitatzailerak elektronikoki izenpetutako dokumentu eta eranskinek izan behar dute lehentasuna.

Eskaintza nork egin duen alde batera utzita, eskaintza elektronikoa sinatu beharko du enpresaren edo entitatearen izenean eta hura ordezkatzuz kontratatzeke ahalorde askietsia duen pertsonak. Beraz, bi aukera daude:

- ☐ Eskaintza osoa elektronikoki sinatzen da, enpresa edo entitateko ahalduen ziurtagiriarekin, eta horrek baliozkotasuna emanen dio aplikazioaren inprimaketan sartutako informazio ekonomikoari.

- Edo eskaintza legeko pertsona baliozko baten ziurtagiriarekin sinatzen da (pertsona fisiko edo juridiko ordezkariaren baliozko ziurtagiria) eta ahalordedunak edo ahalordedunek sinatutako dokumentu elektronikoak eranstean dira.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du pertsona edo entitate lizitatzailerak agiri honetako klausulak onartzen dituela baldintzarik gabe, eta erantzukizunpeko adierazpena egiten duela adieraziz aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta lanen kontrataziorako eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Enpresa lizitatzailleak eskaintza ixten duenean, haren edukiaren arrasto bat –laburpen kriptografikoa– sortuko da, eskaintza aurkeztu izanaren egiaztatze gisa. Lizitatzen duenak arazorik badu PLENA plataforman bere eskaintza aurkezteko tenorean, arrastoa –laburpen kriptografikoa– eskaintzak aurkezteko epemugaren barnean bidaliz gero kontratazio-organoari (Kontratazio Atarian ezarritako harremanetarako posta elektronikora), epea 24 orduz luzatuko da eskaintza osoa PLENaren bidez jasotzeko eta aurkezpena osatutzat jotzeko. Beharkizun horiek bete ezean, ez da onartuko lizitazioaren iragarkian ezarritako epetik kanpo jasotzen den parte hartzeko eskaerarik.

Agiriak zer ekipotatik aurkeztu behar diren, beharrezkoa da ekipo horrek 5 minututik gorako desfasea ez izatea Nafarroako Gobernuaren zerbitzariaren orduarekin.

Nafarroako Gobernuko zerbitzariak denbora unibertsal koordinatua (UTC) baliatzen dute, hau da, erreferentziako nazioarteko laborategiek mantentzen duten denbora eskala unibertsala, honako zehaztasun hau duena: +/- 1 segundo. Hori izanen da, hortaz, zerbitzu elektronikoen ordu ofiziala.

- Lehen mailako ordu-iturria: hora.roa.es (Armadaren Errege Institutua eta Behatokia: bi zerbitzari San Fernandon, Cadizen, eta hirugarren bat Madrilen)
- Bigarren mailako iturriak:
 - o canon.inria.fr , INRIA, Paris
 - o i2t15.i2t.ehu.es, EHU

Lizitazio elektronikoaren plataforman eskaintza honetarako ezarritako egituraren arabera aurkeztuko dira lizitatzailen proposamenak, eta gutun-azalak hiru izanen dira, honela identifikatuta:

- A gutun-azala: Dokumentazio administratiboa.
- B gutun-azala: Irizpide kualitatiboak
- C gutun-azala: Formula bidez zenbatestekoak diren irizpideak.

Gutun-azal bakoitzean honako dokumentu hauei dagozkien artxibo elektronikoak sartuko dira:

A gutun-azala: "Dokumentazio administratiboa".

Lizitatzailleek "Dokumentazio administratiboa" A gutun-azalean dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Erantzukizunpeko adierazpena, Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (EB) Exekuzio Erregelamenduak ezarri zuen Europako kontratazio-agiri bakarraren (EKAB)

formularioaren arabera, behar bezala ahaldundutako pertsonak betea eta sinatua, agiri honen "LIZITATZAILEEK EUROPAKO KONTRATAZIO-AGIRI BAKARRAREN (EKAB) ERANSKINA BETETZEKO JARRAIBIDEAK" I. eranskinean adierazitako moduan. Adierazpen horretan helbide elektroniko bat jarri beharko da jakinarazpenak bide elektronikoetatik egiteko. Era berean, adierazpenaren sinatzaileak sinatuko du kontratu administratiboa adjudikaziodun gertatzen bada. Kontratua sinatuko duena beste norbait bada, nork sinatuko duen jarri beharko da adierazpenean.

Kaudimena azpikontratazioaren bidez egiaztatu behar bada, erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztu beharko da, Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) inprimakiaren arabera, azpikontrastek behar bezala ahaldundutako pertsonak beteta eta sinatuta, eta azpikontrastaren zerrenda jasoko da, bai eta enpresa azpikontrastak kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzeko gaitasuna duten pertsonekin konpromiso formala dutela egiaztatzen duen dokumentu bat daukatela ere.

2. Aldi baterako enpresa-elkarteek edo batera parte hartzen duten pertsonak agiri pribatu bat egin behar dute; bertan, lizitatzailerik batera aurkeztu nahi dutela adierazi, enpresa edo lizitatzailerik bakoitzaren partaidetza portzentajea zehaztu, eta ordezkari edo ahaldundu bakarra izendatu beharko dute, kontratuak sortzen dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko ahalmenak izanen dituen hura azkendu arte; horrek ez du eragotziko kobratu edo ordaintzeko ahalmen mankomunatuak izatea. Dokumentua sinatu beharko du lizitatzailerik edo haien ordezkari bakoitzak.
3. Atzerriko enpresak badira, adierazpena aurkeztu behar da. Hartan lizitatzailerik men egiten dio Espainiako edozein mailatako auzitegi eta epaitegien jurisdikzioari, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sortzen ahal diren gorabehera guztietan, uko eginez izan dezakeen atzerriko foru jurisdikzionalari, halakorik bada.

Aurreko apartatuetan aipatzen diren inguruabarrak bete beharko dira eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta iraun egin beharko dute kontratua burutzeko unean.

A gutun-azalean sartzen bada eskaintza ekonomikoaren zenbateko osoari buruzko edozein erreferentzia edo eskaintzaren edo prezio partikularren azken prezioa ondorioztatzeko moduko edozein datu, enpresa ez da lizitazio honetara onartuko.

B gutun-azala: "Irizpide kualitatiboak" (zenbat sortatara aurkeztu, hainbat).

Gutun-azal honetan, lizitatzailleak aurkezten duen dokumentazio tekniko guztia sartu behar da, Kontratuei buruzko Foru Legearen 97. artikuluekin bat. Irizpide kualitatiboak baloratzeko eta puntuatzeko erabiliko da dokumentazio hori, eta hartan azaldu beharko da zer prestazio egin beharko diren kontratua egoki egikaritzeko.

Laneko proposamen teknikoa ere eduki behar du, lehen puntuan definituriko helburuei egokitua eta ezarritako baldintza teknikoei doitua.

Bertan zehaztuko da euskara IKTetan (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) eta kultura digitalean sustatzeko haurrengan eta gazteengan eragin berezia izanen duten jarduerak egiteko proiektua eta, orobat, hura baloratzeko aurkeztu nahi diren gainerako agiriak, adjudikazio irizpideekin bat. Zehaztu behar da zer jarduera egingen diren. Proposamenek ahalik eta zehatzen jaso beharko dituzte jarraituko duten programazioa, metodologia eta dinamizazioa, komunikazio-plana eta kontratu honen barruan egin nahi diren balio erantsiko elementuak, bai eta zein baliabide erabiliko diren ere behar bezala amaitzeko lana jardunaldietarako ezarritako epean 1. sortaren kasuan, eta programatutako 12 ikastaro eta lantegiak 2. sortaren kasuan.

Era berean, adjudikazio-irizpideen arabera baloratu daitezkeen datuak ere sartu behar dira horiek kontuan hartzea nahi izanez gero, C gutun-azalean formulen bidez baloratu beharreko alderdiak sartu gabe.

C gutun-azala: "Formula bidez zenbatesten ahal diren irizpideak" (zenbat sortatara aurkeztu, hainbat)

Gutun azal honetan sartu behar dira eskaintza ekonomikoa eta formulen bidez zenbatestekoak diren irizpideei dagokiena.

Lizitatzaille bakoitzak agiri honen III. eta IV. eranskinetan ezartzen diren ereduaren arabera jasoko ditu eskaintza ekonomikoa eta formula bidez zenbatestekoak diren irizpideei dagokiena.

Proposamen ekonomikoa behar bezala sinatu beharko du pertsona edo entitate lizitatzailleak edo hura ordezkatzeko duenak, eta ezin izanen du gairik kontratu honetarako ezarritako gehieneko prezioa. Prezioak eurotan emanen dira eta ulertuko da bertan barne hartzen direla zerga eta tasa aplikagarri guztiak, eta sortzen den zeinahi gastu.

Eskaintza ekonomikoak egokia izan behar du adjudikazio-hartzailea gai izan dadin kasuan kasuko sektoreko hitzarmenaren aplikaziotik heldu den kostuari aurre egiteko, gutxienez ere;

finkaturiko soldaten orduko prezioak ezin izanen dira inolaz ere apalagoak izan hitzarmeneko orduko prezioak, gehi hitzarmeneko orduko prezioari buruzko hobekuntzak gehi Gizarte Segurantzako kostuak baino.

Eskainitako prezioaren kalkuluak barne hartuko ditu jarduera egiteak ekarriko dituen ordainsari eta egiturazko kostu guztiak; besteak beste:

- Langileen ordainsariak. Gutxienez, Nafarroako bulego eta langelen sektorearen hitzarmen kolektiboan ezarritako soldata baldintzak bete beharko dira.
- Egiturazko gastuak, kontratu honen xedearekin zuzenki loturik badaude. Sartu behar da ikastaroak eta tailerrak emanen dituzten hizlarien zerrenda, baita horietan parte hartzeko duten konpromiso argia ere.

11. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legeak 50. artikuluan xedatzen duenaren arabera, kide hauek osatutako kontratazio mahaia eratuko da:

- Mahaiburua: Paula Kasares Corrales, Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria.

Ordezkoa: Ander Irizar Apaolaza, Hizkuntza Baliabideen Zerbitzuko zuzendaria.

- Idazkaria: Garazi Urritza Uhalde, administrazko publikoko teknikaria (arlo juridikoa).

Ordezkoa: Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko beste pertsona bat, arlo juridikoko administrazio publikoko teknikaria dena.

- Kontu-hartzailetza: Laiene Crespo Arocena, Herritarrekiko Departamentuko kontu-hartzaile delegatua.

Ordezkoa: Raquel Lavín Aramburu, Kontu-hartzea Kudeatzeko Ataleko burua.

- Mahaikidea: Esther Mugertza Imaz, Euskara Sustatzeko Ataleko burua.

Ordezkoa: Javier Fernández Anaut, Euskararen Egiaztapenen eta Prestakuntzaren Ataleko burua.

- Mahaikidea: Jon Bujanda Cambra, erdi mailako euskara teknikaria.

Ordezkoa: Koldo Los Arcos Pérez, erdi mailako euskara teknikaria.

Kontratazio mahaiak Kontratuei buruzko Foru Legeak 50. eta 51. artikuluetan ematen dizkion eginkizunen arabera jokatu du eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak xedatzen duenaren arabera gobernatuko da deialdiaz, saioez, quorumaz, mahaikideen eginkizunez, aktez, abstentzioaz, errekusazioaz eta abarrez den bezainbatean.

Edozein proposamen egin baino lehenago, mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eska ditzake, baldin eta kontratuaren xedearekin zerikusia badute.

12. ESKAINTZEN IREKIERA ETA ADJUDIKAZIOAREN PROPOSAMENA

- A GUTUN-AZALA IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea bukatu, kontratazio mahaiak, ekitaldi pribatu batean, aurkeztutako proposamenen A gutun-azalak irekiko ditu, eta kontratatzeko exijitutako baldintzak betetzen dituzten lizitatuak aurkeztutako adierazpenetako dokumentazioa kalifikatuko du.

Kontratazio mahaiak zuzentzeko moduko akatsak atzematen baditu nortasuna edo gaitasuna frogatzen dituen dokumentazioan, 5 egun naturaleko gutxieneko epea emanen dio ukitutakoari horiek zuzentzeko, eta hala egin ezean ez dela onartuko ohartaraziko du.

- B GUTUN-AZALA IREKITZEA

Barneko ekitaldian, kontratazio mahaiak onartutako enpresek aurkeztutako B gutun-azalak ireki eta haiek baloratuko ditu.

- C GUTUN-AZALA IREKITZEA ETA ADJUDIKAZIOA PROPOSATZEA

B gutun-azala baloratu ondoren, C gutun-azala irekiko da barneko ekitaldian, eta mahaiak behar den puntuazioa emanen du. Jarraian, kontratazio mahaiak puntuazio osoa onetsiko du, batetik, formulen bitartez kuantifikatzeko modukoak diren irizpideen puntuazioen baturarena, eta, bestetik, kuantifikatzekoak ez diren irizpideen puntuazioen baturarena. Hartara, lizitatuak lehentasun-hurrenkera ezarriko du eta adjudikazioaren proposamena jaso duen lizitatuari eskatuko dio egiaztatzea 14. klausulan adierazitako dokumentazioa baduela eta hura baliozkoa dela, egoera horren berri eman eta gehienez ere zazpi egun naturaleko epean.

Aurkeztutako dokumentazioan konpontzeko moduko akatsak atzematen badira, lizitatuari eskatuko zaio haiek zuzentzea, gutxienez 5 egun naturaleko epean.

Lizitatuak dokumentazio hori aurkeztu ondoren, kontratazio mahaiak haren aldeko adjudikazio-proposamena egingen du.

Lortutako puntuazioak eta aurkeztutako eskaintzak jendaurrean jarriko dira Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 97. artikuluan ezarritakoaren arabera.

13.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK.

Sorta bakoitzaren kontratuaren adjudikazioa eginen da kostu-eraginkortasun irizpideei (prezioa) zein irizpide kualitatiboek jarraikiz, adjudikazioa proposamen onuragarrienari emateko asmoz, halakotzat harturik puntu gehien duen eskaintza adjudikazio irizpide hauek aplikatuta:

13.1 Irizpide kualitatiboak: proiektuaren balio teknikoa, gehienez ere 50 puntu.

a) Proposatutako metodologia: Berariaz baloratuko da prestakuntza eta dibulgazio arloko proposamenaren dinamizazioa. Gehienez ere, 15 puntu.	25
Berariaz baloratuko da Hezkuntzarekiko, toki-erakundeetako euskara zerbitzuekiko eta Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekiko koordinazioa, publiko potentzialera zuzenago iristeko. Gehienez ere, 10 puntu.	
b) Ekitaldiaren zabalkunde plana/komunikabide plana: 10 puntu arte. Sartu behar dira ekitaldiaren propagandaren diseinua, liburuxkak, kartelak eta abar, bai eta sare sozialetan eta komunikabideetan nola zabaltzeko den ere.	10
c) Jarduerak behar bezala egiteko beharrezkoa den azpiegitura teknikoa (ordenagailuak, sareko konexioa, proiektagailua...) eta baliabide pertsonalak, baita aldibereko itzulpena egiteko langileak eta tresnak ere, beharrezkoa bada: 5 puntu arte.	5
d) Balio erantsia: ekarpenen kopurua eta ekarpen osagarrien kalitatea: Gehieneko puntuazio hori aplikatuko zaio honako irizpide hauen arabera ekarpen baloragarri gehien dauzkan eskaintzari: interaktibitatea, teknologien erabilera, irisgarritasuna, kokapena eta proposamena zabaltzeko aukerak, hala nola mikroorrialdeen, bideoen eta rollerren bidez. Gainerako proposamenek hiruko erregela zuzen hau aplikatu ondoren ateratzen den puntuazioa izanen dute: 10 bider baloratutako enpresaren ekarpen-kopurua zati kopuru handiena duen enpresaren ekarpen-kopurua.	10

13.2. Formula bidez zenbatetekoak diren irizpideak: gehienez ere 50 puntu.

a) Berariaz baloratuko da ikastaro bakoitzaren funtzionamendua azaltzeko alde aurreko online saioak egitea. 0,5 puntu ikastaro bakoitzeko, 5 puntura arte gehienez.	5
b) Berariaz baloratuko da eskaintza herri batean baino gehiagotan egitea. 1 puntu herri bakoitzeko, 10 puntura arte gehienez.	10
c) Irizpide sozialak: - Langabezian dauden emakume gazteen kontratazioa (18-30 urte):	15 10

2,5 puntu emanen dira lantaldean sartzen den emakume bakoitzagatik, 10 puntura arte gehienez. - Desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa: 2,5 puntu emanen dira % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen langile bakoitzeko (kontratura atxikitako taldearen barnean egon beharko dute); 5 puntura arte gehienez.	5
d) Eskaintza ekonomikoa:	20
Gehieneko puntuazioa eskaintza merkeenari emanen zaio. Gainerako eskaintzek formula hau aplikatu ondoan ateratzen den puntuazioa izanen dute: $\text{Puntuak} = \frac{(\text{Kontratuaren gehieneko aurrekontua} - \text{Lizitatzaillearen proposamen ekonomikoa}) \text{ BEZik gabe}}{(\text{Kontratuaren gehieneko aurrekontua} - \text{Gutxieneko aurrekontua}) \text{ BEZik gabe}} \times 20$ Eskaintza ekonomikoetako batek bat egiten badu lizitazioko gehieneko aurrekontuarekin, 0 puntu eskuratuko ditu.	

13.3. Eskaintza baxuegiak: Eskaintza baxuegitzat joko da lizitazioko gehieneko prezioarekiko beherapena % 25 baino gehiago bada; halakoetan, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 98. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

14. ADJUDIKAZIO-HARTZAILE GISA PROPOSATURIKO LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Behin adjudikazioaren proposamena modu elektronikoan jakinarazita, proposatutako lizitatzailleak edo lizitatzailleek 7 egun naturaleko epea izanen du edo dute dokumentazio hau aurkezteko Lizitazioaren Plataformaren bidez:

a) Nortasuna frogatzen duen agiria:

- Lizitatzaillea pertsona fisikoa bada, nortasun agiri nazionala edo araudiaren arabera hura ordezkatzeko duen agiria.
- Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, eratzeko eta, halakorik bada, aldatzeko eskritura aurkeztu beharko dira, dagokien erregistroan behar bezala inskribatuak.

- Proposamenak beste pertsona baten izenean aurkezten edo sinatzen dituztenek honako hauek aurkeztu beharko dituzte: ahalorde askietsia eta ahalduaren nortasun agiri nazionala. Lizitatzailerak pertsona juridikoa bada, ahalordea dagokion erregistroan behar bezala inskribaturik egon beharko da, betebeharrak hori eskatzekoa denean aplikagarri zaion merkataritzari buruzko legeriaren arabera.
- Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailerak Borondatezko Erregistroan (apirilaren 19ko 174/2004 Foru Dekretuaren bidez sortua) inskribatuta dauden enpresen kasuan, lizitatzailerak ez du bere nortasunari edo ordezkartzari buruzko agiririk aurkeztu beharko, baldin eta aurkezten baditu erregistro horretan inskribatuta egotearen ziurtagiriaren kopia, modu elektronikoa Internet bidez eskuratua, eta horren indarraldiaren gaineko erantzukizunpeko adierazpena.

b) Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiria, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere hiru hilabete lehenago egina, lizitatzailerak Nafarroako Zerga Ogasunarekiko zerga betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatzen duena.

c) Lizitatzailerak zerga Nafarroatik kanpora ordaintzen badu, aurreko puntuan aipatzen denaren antzeko ziurtagiria, Zerga Agentziak edo foru ogasunak egina.

d) Adjudikazio-hartzaileak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneraturik dituela egiaztatzen duen agiria, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere sei hilabete lehenago egina.

e) Kasua bada, irizpide sozialetan sartutako pertsonak kontratatu direla egiaztatzen duten kontratuak.

f) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzen duen dokumentazioa, agiri arautzaile honen 7. klausulan adierazitakoa.

g) Kaudimen tekniko edo profesionala, agiri arautzaile honen 8. klausulan adierazitakoa.

h) Atzerriko enpresak:

1. Europar Batasuneko kide diren estatuetakoa edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoa enpresa ez-espainiarrek frogatu beharko dute ezen, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera, kasuan kasuko prestazioa emateko gaikuntza dutela. Enpresa hori ezarrita dagoen estatuko legeriak kontratuko prestazioa estatu horretan egiteko baldintza gisa jartzen duenean baimen berezia edukitzea edo erakunde jakin bateko kide izatea, enpresak frogatu beharko du baldintza hori betetzen duela.

Era berean, dokumentuaren kopia aurkeztuko da eta hartan egiaztatuko da proposamena aurkeztu duen pertsonak edo, pertsona desberdina bada, kontratua sinatu behar duen pertsonak enpresaren legezko ordezkaritza dutela eta, horrekin batera, bi ordezkari horien nortasun agiri nazionalen edo dokumentu baliokideen kopiak.

2. Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikokoak ez diren estatuetako enpresek frogatu beharko dute badaukatela jarduteko gaitasuna beren jatorrizko estatuko legeriaren arabera, eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala ere bai; eta, horrez gain, aurkeztutako dokumentazioari Espainiako kasuko ordezkaritza diplomatikoaren txosten bat erantsiko diote, frogatzen duena enpresa atzeritarraren jatorrizko estatuak ere bere aldetik onartzen duela espainiar enpresek administrazioarekiko kontratazioan parte har dezatela, funtsean antzekoa den moduan. Elkarrekikotasun txosten hori ez da beharko Merkataritzaren Munduko Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresak badira.

Era berean, dokumentuaren kopia aurkeztuko da eta hartan egiaztatuko da proposamena aurkeztu duen pertsonak edo, pertsona desberdina bada, kontratua sinatu behar duen pertsonak enpresaren legezko ordezkaritza dutela eta, horrekin batera, bi ordezkari horien nortasun agiri nazionalen edo dokumentu baliokideen kopiak.

i) Lizitatzailleak batera parte hartzen ari badira edo aldi baterako enpresa-elkarte bat eratzekeo konpromisoa badute, lehiaketara aurkeztu den enpresa bakoitzak aurkeztu beharko du aipatutako dokumentazioa.

Behar diren agiriak epe horretan aurkeztu ezean, adjudikazio-hartzailea prozeduratik kanpo geldituko da, eta kontratuaren balio zenbatetsiaren % 5eko penalizazioa ordaindu beharko du, bai eta kalte-ordain osagarria ere, portzentaje horren gainetik eragindako kalte eta galerengatik.

15. KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratazio mahaiak behar den adjudikazio-proposamena igorriko dio Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileari, kontratua adjudikatzeko ebazpena eman dezan. Proposamen horretan jasoko dira ezarritako irizpideak aplikatuz proposamen bakoitzari buruz egindako balioespenak, eta horren barrenean, berriz, proposamen onargarria egin duten lizitatzailleen lehentasunaren hurrenkera, atera duten puntu kopurua zehaztuz eta adieraziz, hala behar badu, eskainitako zer hobekuntza eman diren ontzat.

Adjudikazioa behar bezala arrazoitu beharko da, bai eta lizitatzailer guztiei jakinarazi ere; gainera, horren eraginkortasuna etenda geldituko da 10 egun naturalean, adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen den egunetik hasita

Kontratua agiri administratibo batean formalizatuko da, adjudikazioaren etete epea bukatu ondoko 15 egun naturaleko epearen barnean. Administrazioak eta kontratistak formalizatuko dute kontratua.

16.- KONTRATUA GAUZATZEA

16.1.- Kontratua Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren gainbegiratze, ikuskatze eta kontrolaren pean gauzatuko da.

Lanak egikarituko dira klausula hauei eta langile arduradunek idatziz emandako jarraibideei loturik. Kontratistak une oro men egin beharko die indarrean dagoen legeriak Administrazio kontratugileari kontratua interpretatzeko, aldatzeko eta suntsiarazteko ematen dizkion ahalmenei.

16.2.- Adjudikazio-hartzailea izanen da zerbitzua emateko hautaturiko langileen arduradun bakarra eta, beraz, inola ere ez dute kontratu edo lan harremanik izanen Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuarekin.

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak beretzat gordeko du ahalmena enpresari eskatzeko zerbitzua ematen duten langileak ordezkari dituzan, non eta, bere iritziz, ez diren ari zerbitzua behar bezainbateko kalitate mailarekin ematen.

16.3. Kontratatzaren diren lanak egiteko behar diren langile guztiek euskara maila aski izan beharko dute esleitutako lanak egiteko; gomendatzen da Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparruko C1 mailako euskara titulua izatea.

Halaber, enpresa beharturik dago kontratua egoki gauzatzeko beharrezkoak diren ekipoa, baliabide lagungarriak, bulegoa, aretoak eta langileak jartzera, bai eta udaletako euskara zerbitzuekin eta Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin koordinatzera ere.

16.4.- Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua aske gelditzen da, ondorio guztietarako, enplegatutako langileekiko zernahi harreman funtzional, organiko edo lanekotik, kontratuaren indarraldian zein behin kontratua burututakoan.

16.5.- Enpresa kontratistak Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen urtarilaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuak ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

Halaber, kontratua gauzatzearen ondorioz ekoitzi edo zabaldutako zeinahi dokumentazio, iragarki, dibulgazio material edo informazio materialetan adierazi beharko da Nafarroako Gobernuaren zerbitzu bat dela eta Nafarroako Gobernuaren sinboloa azaldu beharko da, baita Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren aipamena ere, erakunde kontratatzailea den aldetik.

17. LANEN ORDAINKETA.

Ordainketa bakarra eginen da, lana burututakoan. Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuak egiaztatuko du lana behar bezala bete dela. Horretarako, enpresa adjudikazio-hartzaileak kontratuaren arabera gauzatutako lanen memoria bat aurkeztu beharko du, dagokien fakturarekin batera. Memoriak jardueraren inpaktua neurtzen lagunduko duten datu objektibo eta kuantifikagarriak jaso beharko ditu (adib.: parte-hartzaileen kopurua).

18. KONTRATUA BETETZEA

Pertsona edo entitate adjudikazio-hartzaileak ekintza eta ikastaro guztiak kontratuaren epean gauzatu beharko ditu, eta kontratazioa zuzentzen duten pleguei eta eskaintzaren edukiari jarraiki.

Kontratua bete dela egiaztatuko da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren oniritziarekin.

18.1. Ez-betetzeak.

Kontratastaren ez-betetzetzat joko dira honako jokabide hauek:

Ez-betetze arinak

A.1 Agiri honetan eskatutako langileak edo baliabide materialak kontratua egikaritzean erabiltzeko edo horretara atxikitzeko konpromisoa ez betetzea. Lizitazio-proposamenean zerrendatutako hizlariak tailerretan eta ikastaroetan parte ez hartzea ere sartzen da.

A.2 Lanak entregatzeko epea ez betetzea.

Ez-betetze astunak

B.1 Kontratua akatsekin egikaritzea, hots, baldintza teknikoetan eskatutako kalitate mailara iritsi gabe.

B.2 Azpikontrataziorako ezarritako baldintzak haustea.

B.3 Kontratua kudeatzen duen unitateak emandako aginduak ez betetzea, hura egikaritzeari dagozkion gaitan.

C. Ez-betetze oso astunak

C.1 Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak ez betetzea.

C.2 Lan edo gizarte arloko betebeharrak ez betetzea langileei dagokienez.

C.3 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko araudia ez betetzea.

18.2 Zehapenak

Kontratatzen ez-betetzeak sailkapen honen arabera zigortuko dira:

- a) Ez-betetze arinak, adjudikazio zenbatekoaren % 1 gehienez.
- b) Ez-betetze astunak, adjudikazio zenbatekoaren % 1etik % 5eraino, kontuan hartuta kontratatzen zabarkeriaren maila, ez-betetzeak eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa edo berrerortzea.
- c) Ez-betetze oso astunak, adjudikazio zenbatekoaren % 5etik % 10eraino, kontuan hartuta kontratatzen arduragabekeriaren maila, ez-betetzeak eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa edo berrerortzea.

Ez-betetze oso astunen ondoriozko zigorra kontratuaren zenbatekoaren % 20 adinakoa izaten ahalko da, foru lege horren 66. artikuluan aurreikusitako kontratua egikaritzeko baldintza bereziak betetzen ez direnean.

Kontratistari ezartzen ahal zaizkion zigorren gehieneko zenbateko osoa ez da adjudikazio zenbatekoaren % 20 baino gehiago izanen. Ez-betetzeak eragindako zigorrak adjudikazio zenbatekoaren % 10 baino handiagoak direnean, hasten ahalko da kontratatze debekua deklaratzeko prozedura.

18.3. Arriskua eta mentura.

Kontratua kontratatzen arrisku eta menturara gauzatuko da eta hura egikaritzen ari den bitartean gerta daitezkeen galera, matxura edo kalteak kontratatzen kontura izanen dira, batere ukatu gabe haietarako aseguru egiteko aukera.

18.4. Kontratua egikaritzean eragindako kalte-galerak.

Kontratistari egozten ahalko zaizkio kontratua egikaritzearen ondorioz jabetzaren nahiz hirugarrenen ondasun eta pertsonen eragiten zaizkien kalte eta galera guztiak. Foru Komunitateko Administrazioak bakarrik erantzunen du bere organoen berehalako eta zuzeneko aginduen ondoriozko kalte-galerengatik.

18.5. Kontratistak lan araudia betetzea.

Kontratu horrek errespetatu behar ditu lanari, Gizarte Segurantzari eta laneko osasun eta segurtasunari buruzko lege, araudi eta hitzarmen mailako xedapenak, batik bat enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru apalena hartzen duen azken lan-hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak.

19. JABETZA INTELEKTUALA

Adjudikazio-hartzaileak espresuki onartzen du egindako lan guztien dokumentuak eta emaitzak eta haien jabetza intelektual Nafarroako Gobernuaren jabetza eskusiboa direla, eta Nafarroako Gobernuak osorik edo partez erreproduzitu ahal izanen dituela.

Enpresa kontratatutak uko egin beharko die kontzeptu horien gaineko eskubide guztiei, eta soil-soilik erabiltzen ahalko ditu etorkizuneko lanen erreferentziatako.

20. DATUAK BABESTEIA ETA KONFIDENTZIALTASUNA.

Enpresa edo pertsona adjudikazio-hartzaileak konpromisoa hartuko du isilpekotasunez eta lanbideko sekretua gordez jarduteko, laguntzaren xede diren datu eta agiriak dagokienez. Erabiltzen diren artxibo, base, memoria eta zerrendak oro Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren titulartasunekoak izanen dira. Ezin izanen dira erabili lan horrek ez dituen xedeetarako eta ezin izanen ditu erabili kontratatutako lanaz kanpoko inork.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak ezin izanen ditu egiten dituen lanen agiriak eta emaitzak baliatu, ezta etorkizuneko lanerako erreferentzia edo oinarri gisa ere, ez badu Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren baimen berariazkoa eta idatzia lortzen horretarako. Baimen berariazkoa eta idatzia beharko du, orobat, ematen zaion informazioa beste entitate publiko nahiz pribatu bati helarazteko.

Gai honi dagokionez, bete beharko da Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta lege organiko hori garatzeko erregelamendua onesten duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan xedatutakoa, bai eta horiek ordeztzen edo aldatzen dituen zeinahi beste arau.

21. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK

Kontratuaren adjudikazioaz, interpretazioaz, aldaketaz eta suntsiarazteaz sortzen diren auzigaiak kontratazio organoak ebartziko ditu, eta haren ebazpenen aurka gora jotzeko

errekurtsua aurkezten ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Nafarroako Gobernuak hartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzen ahalko da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin ondoko egunetik hasita, hala xedatzen baitu jurisdikzio hori arautzen duen legeak, 46. artikuluan.

Nolanahi ere, lizitazioan interesa duten enpresek eta profesionalek, aukeran eta aurrekoen ordeztasun, kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa aurkezten ahalko dute kontratazio agirien aurka, izapide egintzen edo behin betiko egintzen aurka edo adjudikazio egintzen aurka, baldin eta egintza horien ondorioz lizitaziotik kanpo gelditzen badira edo haien igurikimenei kalte egiten bazaie.

Erreklamazioa Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian aurkezten ahalko da, hamar eguneko epean, aurkaratutako egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, eta bakar-bakarrik funtsatzen ahalko da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak 124. artikuluan aipatzen dituen arrazoietan.

I. ERANSKINA

LIZITATZAILEEK EUROPAKO KONTRATAZIO-AGIRI BAKARRAREN (ekab) ERANSKINA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Erantzukizunpeko adierazpenari dagokion eranskina Europako kontratazio-agiri bakarraren (EKAB) eredu normalizatuaren bidez betetzeko, urrats hauei jarraitu behar dituzu:

1. Zure ekipora jaitsi behar duzu espd-request.xml fitxategia: izen bereko zip fitxategian dago, Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratutako iragarkian.
2. Ondoko esteka hau ireki ezazu: <https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es>
3. Hautatu gaztelania hizkuntza gisa: "español"
4. Hautatu operadore ekonomikoen aukera: "Soy operador económico"
5. Hautatu EKAB bat inportatzeko aukera: "importar un DEUC"
6. Karga ezazu EKAB fitxategia (DEUC, gaztelaniaz), hots, lehen zure ekipoan deskargatu duzun .xml fitxategia (1. urratsekoa).
7. Hautatu herrialdea eta, aurrera jarraitzeko, sakatu "siguiente".
8. Bete itzazu dagokion EKABeko atalak.

Estatuko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean (ELESEO), edo Nafarroako Lizitatzailen Borondatezko Erregistroan, edota beste erkidego batzuetako baliokideetan inskribatuta dauden enpresek, II. atalean, soilik aurkeztu beharko dute haietan inskribatuta ez dagoen informazioa edo, inskribatuta izanik ere, eguneratu gabe dagoena, betiere erregistro horietan sartzeko behar den informazioa EKABean ematen badute.

9. Dokumentua inprimatu eta sinatu

Dokumentu hau behar bezala betea eta sinatua aurkeztu behar da lizitazioko gainerako dokumentazioarekin batera, kontratazioa arautzen duten agiri partikularretan ezarritakoaren arabera eta hartan finkatutako epean.

Lehiaketan parte hartzen badute aldi baterako enpresa-elkarteek (horretarako denbora baterako eratutakoek) edo batera parte hartzen duten pertsonak, parte hartzen duen enpresa edo pertsona bakoitzeko EKAB bat bete beharko da.

Kontratua egiteko behar den kaudimena egiaztatzeko enpresa lizitatzailleak beste entitate batzuen kaudimenean oinarritzen badira, haien arteko harreman juridikoa edozein izanik ere, enpresa lizitatzailleak dokumentu bat bete beharko du eta beste bat atxikitako baliabideen jabe den enpresak.

Zuen eskura dago "Kontratazio publikoaren zuzentarau berrian zehazten den Europako kontratazio-agiri bakarra (EKAB) erabiltzearen gainean Kontratazio Administratiboko Batzordeak emandako gomendioa", (2016ko apirilaren 8ko, ostirala, 85. zenbakidun Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua —III. atala, 24845. or.—), esteka honetan:

<http://www.boe.es/boe/dias/2016/04/08/pdfs/BOE-A-2016-3392.pdf>

II. ERANSKINA

FORMULA BIDEZ ZENBATESTENAK DIREN IRIZPIDEAK

Aurretiko online saioen kopurua	
Langabezian dauden emakume gazteen kontratazioa. Kontratatu beharreko pertsonen kopurua.	
Desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa. Kontratatu beharreko pertsonen kopurua.	

III. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Izena: _____ NANA edo IFZ: _____ Helbidea: _____
_____ Telefonoa: _____ nire izenean edo honen
izenean: _____ arituz, proiektua, administrazio klausulen agiria eta baldintza
teknikoak ezaguturik laguntza teknikoaren zerbitzua kontratatzeko euskara IKTetan
(informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) eta kultura digitalean sustatzeko haurrengan
eta gazteengan eragin berezia izanen duten jardunaldiak egiteko, hitzematzen dut zehatz-
mehatz beteko ditudala baldintza horietan ezarritakoa eta, orobat, eskaintza hau egiten dut:
PREZIOA

1. sorta: _____ euro (gehi BEZa).

2. sorta: _____ euro (gehi BEZa).

Bi sortak: _____ euro (gehi BEZa).

Iruñean, 2023ko

aren

(e)an

IV. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO LIZITATZAILEEN ERREGISTROAN JASOTAKO DATUAK EZ DIRELA ALDATU ADIERAZTEKO*

Izena: _____ NAN zenbakia: _____ ,
Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzzaileen Erregistroan _____ zenbakiarekin
izena eman duen enpresaren _____ gisa (1), neure erantzukizunpean aitortzen dut
Lizitatzzaileen Erregistroak dituen enpresaren datuak indarrean daudela eta ez direla deus ere
aldatu, eta Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzzaileen Erregistroko inskripzioaren ziurtagirian,
_____ zenbakiko espedientean, agertzen direnak berak direla. Ziurtagiria agiri honi
erantsia dago, euskara IKTetan (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) eta kultura
digitalean sustatzeko haurrengan eta gazteengan eragin berezia izanen duten jardunaldiak
egiteko laguntza teknikoaren zerbitzua kontratatzeke lizitazioan parte hartu ahal izateko.

(1) Adierazi administratzailea ala ahaldua den.

(tokia, data eta sinadura)

* Informazio gehiago hemen: www.nafarroa.eus (urratsak: zerbitzuen katalogoan, kontratazioen barruan eta haiekin zerikusia duten esteketan, jo Lizitatzzaileen Borondatezko Erregistrora)

V. ERANSKINA

BATERAKO PARTE-HARTZE EREDUA

.....jaunak/andreak,NANa/IFZ duenak,
jakinarazpenetarako helbide hau duenak:
.....,
PK:, herria:, telefonoak:,
bere izenean / sozietatearen ordezkari gisara (dagokion
bezala), IFZ:

Eskaintza batera parte hartzen duten lizitatzailleek aurkeztuz gero,
adierazi kasu bakoitzean bidezkoa dena:

o Aldi baterako propio eratzen diren enpresari elkarteetan aurkezten dira.

☐ Bai ☐ Ez

o Taldean batera aurkezten dira. Hala bada, adierazi bakoitzaren parte-hartzea zein izan den.

☐ Bai ☐ Ez

Enpresaren izena..... ⇒ ☐ Partaidetza:%

Enpresaren izena..... ⇒ ☐ Partaidetza:%

(Erantzukizunpeko adierazpena faltsutzeak kontratatzekeo debekua ekarriko du, hala xedatzen baitu Kontratuei buruzko Foru Legeak, 22.1.i artikuluan).

(Tokia, eguna eta lizitatzaillearen edo lizitatzailleen sinadura)